

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Hasierako onspena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko xedapen-aldaketari, "José Mardones" 4. BBPBaren barruan 4. gauzatze-unitatea garatzeko

Hauxe erabaki zuen Gasteizko Udalbatzak 2020ko otsailaren 21ean egindako ohiko osoko bilkuran:

1. Hasierako onspena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko xedapen-aldaketa bati, zeinaren xedea "Jose Mardones" 4. Plan Bereziaren barruan 4. gauzatze-unitatea garatzea delarik, betiere F. B. M. D. M. arkitektoak 2019ko ekainean landu eta dossierrean dagoen txostenarekin bat.

2. Plangintzarako Aholku Kontseiluari eskatzea plangintzaren aldaketa honi buruzko txostena egin dezan jendaurreko erakustaldiaren barruan.

3. Jose Mardones 2. BBPBaren eremuan lizentzia-emateak eta erantzukizunpeko aitortpena nahiz aurretiko komunikazioen tramitazioak etetea, aldaketa hori prestatze eta idazte aldera, hura behin betiko onetsi arte; edonola ere, gehieneko epea bi urtekoa izango da, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita.

4. Prozedura honetan interesduntzat jotzea Judimendi hiribideko 18. eko etxejabeen elkarte, eta, horrenbestez, erabaki hau jakinaraztea etxejabeen elkarte horri.

5. Aldakuntzaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz ematea, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hilabeteko epean egokituz jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 24an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE